

## **Euskal partidismoaren zentzua**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-05-11: 2.

Pertsona bakoitzak kultur-mundu osoa darama bere baitan; mundu txiki hau beste munduez inguratuta bizi da. Kaxa baten barruan beste kaxa daraman gizakiak gara, beraz, euskaldunok ere. Honetxegatik merezi du pertsonak errespetu haundia; ez gehiago, baina ezta gutxiago ere. Mundu honen adierazgarri nagusia, hizkuntza da, eta hizkuntzarekin honen barruan urrundik datozen esperientzia eta eskarmentua, ikuspegia, arrazoinbide eta sinesmenekin osatua. Ez galdetu niri hau zergatik den honela, ez dakit eta. Baina halaxe da praktikan. Azter ezazu zure baitan eta igarriko diozu joera. Familiatasun edo herritasunaren zentzu honi nazionalitatea deitzen diote. Aitortuta edo gabe, gizakiak berea defendatzeko sena hori berezkoa du gizalegez. Hizkuntzak, lanbideak, ekonomiak, lurak eta itsasoak, inguramenak, historiak, bereizten joan den zerbait da, kara! Eta elkarrekin bizitzeko unibertso bat besterik ez dugunez, nahitaez elkarrekin bizitzeko bideak aurkitu beharko ditugu. Baina errespetua eta berdintasuna bide direla. Haundiak txikiari ezarri dion gerratean bizi garenok pakea nahi dugu, baina bi aldetik egina! Datozen hauteskundeetan lehen errespetatu behar dugun oinarritzko kultura bera bizi dugunok geure arteko beste diferentzien gainetik onartu behar dugu elkar. Espainola sentitzen dena bizi dadila espainol bezala, frantsesa, berean. Geu demokratikoki geure partidu aukerak egin eta gero elkarrekin lan egin dezagun, ezinbestekoa dugu eta askatasun bidean abiatzeko. Ez da goizegi!